


5

Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari buruzko
berriak, euskal kultura eta askoz gehiago!



1

“Asko maite zaitut” ala “oso maite zaitut”?

Modu askotara adierazten dugu maitasuna: asko maite zaitut, oso maite zaitut, anitz maite zaitut, gura deutsut, nahi dizut... **Zein da egokia?**

Ibon Sarasolaren arabera, “asko maite zaitut” da formarik erabiliena eta neutroena, hori bultzatuko luke. Bestalde, “oso maite zaitut” formak kutsu formala edo jasoago du (hasieratik), baina ez luke horren alde egingo.

- Euskalkietako formak “anitz maite zaitut” eta “gura deutsut/dotzut” ere zuzenak dira, beti ere bakoitza bere mailan eta ebre tokian.
- Kontuan izan behar dugu gauza bat dela idaztea, eta beste bat ahoz esatea. Beti ere, lehenengoaren alde egiten du Sarasolak.

Errezeta: intxaur-saltsa

- 1 Zurezko mailu batez zanpatuko ditugu intxaurrak, edo motrailuan, nahi bezala. Ore fin bat lortu behar dugu. Lehen, bi zatar finez zanpatzen eta xehatzen zituzten intxaurrak.
- 2 Kanelarekin batera egosiko ditugu esnea eta esnegaina; adaxka atera eta intxaur-orea eta azukrea erantsiko ditugu ondoren. Su eztian edukiko dugu guztia egosten, 25 bat minutuan, krema arin bat itxuratu arte. Urtsuegi dagoela sumatzen badugu, luzaroago eduki dezagun egosten; oso lodi badago, esne isuriaz arinduko dugu, sutatik atera aurretik.
- 3 Atera eta ontzitan bantuko dugu ondoren.



Osagaiak

250 g intxaur, zurutuak
Litro erdi esne
Litro erdi esnegain urtu
250 g azukre
Kanela



Umorea



4

Nafarroako Bertso Txapelketa



Julio sotok irabazi du 2023ko Nafarroako Bertso Txapelketa. Ondoan, agurra.

Israelek Gaza piztien eran
ta mundua bestaldera begira
Sahararrak oihuka ari dira
etorkinak egurrezko pateran
eskaleak bost xentimo plateran
zenbait nortasun sexual arazo
guk gizonok emakumeei eraso
ta euskara zapaltzaileen ziegan
sinetsi nahi dut gizakiarengan
nahiz motiborik ez dugun ematen
nik esperantza dut egunen baten
justizia hasiko dela hegan
justizia hasiko dela hegan
nik esperantza dut egunen baten
nahiz motiborik ez dugun ematen
sinetsi nahi dut gizakiarengan



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus